

garaitik bazen Akitania partean Lapurdum bezala ezagutua. Berez, zahartasunik ezin uka.

Gipuzkoarrei ordea, Gaztelan ez, baina Bizkai aldean mai-zenik «giputza» edo «kiputxa» deitzen zaie, «probintzianoa» edo deitzen ez zaionean. Jakina da Nafarroan eta Bizkaian aspalditikakoa dela «Probintzia» eta «probintzianoa», zeren ez bait zen alperrik Espainian Gaztelako erregeen lehen Probintzia. Baina, Bizkaian, ezinezkoa zen Gaztelanian bezala gipuzkoarrei «vizcaíno» deitzea, eta hara nola aurkitzen ditugun XIV eta XV. mendeetan izengoitikako Giputz deiturak. Gipuz (Giputza noski) deitura horiek Juan Carlos de Guerra-ren *Oñacinos y gamboinos, rol de benderizos vascos* (1930) liburuan datoz. Lekukotasun hori 95. orrialdean ikus genezake, era honetan:

«GUIPUS — Juan Pérez el, firmó las treguas de Abendaño con Bilbao en 1353, en unión de Martín Guipuzá.

GUIPUZA — Joan, Gamboino, morador de Ea, que concurrió al ataque de Mondragón en 1448».

Beraz, hara hor mende baten distantzian hiru persona *Gipuzá* (Giputza) deituradunak. Nonbait, bizkaitarrentzat ezinbestekoa zelako. Hortik hiru lekuko: Juan Pérez Guipus, Martín Guipuzá eta Joan Guipuzá.

GEOGRAFIA OZTOPO. — Geografiaz maiz nahasten dira era desberdinetako gaiak, adibidez, politikazko geografia eta linguistikakoa, bakoitzak bere eremu ezaguna edukiarren. Esan beharrik ez da edozein gaitan lehenik mugaketak ondo egin beharra dagoela, baina gure herriko jakitunek inoiz argi ikusten ez dutena ez da erraz herbestekoei ikustea. R. Menéndez Pidal ospetsuaren adibide bat emango dut. Jaun honek, 1948. urtean Instituto de Estudios Pirenaicos erakundeak Pirineoko toki izenez eratu zituen bileretan «Javier-Chabbarri, dos dialectos ibéricos» zeritzan lana aurkeztu zuen, urte berean *Emerita aldizkarian* argitaratuko zena eta geroago berriz *Toponimia prerrománica hispana* (1952) liburuaren kapitulu bat osatuz. Lan horretan, «barri» eta «berri» geografian mugatzeko unean,

243. orrialdean, «barri» forma batzuk ematen ditu, Gipuzkoa partean aurkituak, Azkueren iritzia deuseztatuz. Baina, zeintzuk dira herri horiek? Arrasate (Mondragoe) eta Oñati. Baina ez zen ohartu bi herriotan bizkaiera mintzatzen dela, eta ez gipuzkera.

Liburu hori argitaratu zenerako Azkue hila zen eta ez dakit beste inork aditzera eman zion Menéndez Pidal jaunari zer nolako hutsean erori zen. Ezetz dirudi, zeren handik hamar urtera ere lehengo berean jarraitu bai zuen, *En torno a la lengua vasca* (1962) deritzan liburuan, berriz ere, Oñati eta Mondragoeko Uribarri auzo izenen adierazpenak jarriaz. Hala irakur daiteke liburua 128. orrialdean.

J. S. M.